

BALEIKE

234. ZENBAKIA. DOAN
2014ko UZTAILA ETA ABUZTUA

www.baleike.com

ZUEKIN BESTE



449€



BOSCH
GARBIGAILUA
WAQ24468EE

- 8 kg
- 1.200 bira/min
- A+++

89,90€



SUNSTECH
TABLETA 900DC
• 9"-ko pantaila
• 8 Gb memoria

249€



BEKO
GARBIGAILUA
EV6100

- 6 kg
- 1.000 bira/min
- A+

249€



SAMSUNG
LED TELEBISTA
UE 32EH4003W
• 32"
• TDT HD
• USB bideoa

499€



WHIRLPOOL
HOZKAILUA
WBE3625

INOX

- No frost
- A+
- 200 x 60 cm
- Inox

349€



ZANUSSI
GAINEKO SUKALDEA
ZEI6632FBL

- 3 indukzio gune
- 28 cm-ko gune handia

**Muntatzea
Doan**



ENDAÑETA ZUMAIA
ELEKTROGAILUAK

Erribera, 8 Tel. 943 861 694
www.endanetazumaia.com

BALEIKE 234



Urrea balio duelako

Gorka Zabaleta
BALEIKEko zuzendaria



HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkarte

e-maila: elkarte@baleike.com

Administrazio batzordea: Agustin Zubimendi eta

Xabier Azkue.

Erredakzio taldea: Imanol Azkue, Ainara Lozano

Lasa, Aitor Manterola, Juan Luis Romatet,

Miriam Romatet, Peio Romatet, Arnaitz Rubio, Jon

Urbieto, Izaskun Urbieto eta Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

azubimendi@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

4.500 ale

Legu gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Bertigo pixka bat sentitzen da atzean hogeitau urte utzi ditugula pentsatzean; nostalgia puntu bat, zuri-beltzeko argazkitan galdutako gaztetasunarekin topo egitean; eta zergatik ez aitortu, bide bazterretako asunaren azkura ere berritzen da paper horituak gainbegiratzeko. Baina, batik batik, harrotasuna sentitzen da. Harro, duela 20 urte gazte zirikatzaile koadrila batek izan zuen amets zoroak bizirik dirauelako. Gurekin batera itxuraldatu da –txima luzerik ez du dagoeneko–, baina hemen dago, sendo, zuen babesarekin beste 20 urte betetzeko gogotsu.

Urrea balio duelako. Potoloa botatzera noa, baina, gaur onartuko didazue: burujabetza hainbeste hitz egiten den garai hauetan, inoiz pentsatu al duzue zenbat balio duen burujabetza informatiboak? Inoiz pentsatu al duzue zer garrantzitsua den herri batek

bere tresna propioak izatea informatzeko, komunikatzeko, eztabaidatzeko, iritziak plazaratzeko, auskalo zer interes dituzten enpresa talde handien menpe egon gabe? Hori da herri ekimenez sortutako euskarazko hedabideok gure komunitateei eskaintzen dieguna: burujabetza informatiboa. Herria da bere hedabidearen jabe.

Etxe guztietara zabaldu dugun zenbaki berezi honetan zumaiarrek *Baleikeri* eskaintako esker oneko hitz asko irakurriko dituzue. Horrek ere urrea balio du. Baina gu ez gaude laudorioen izpi distiratsuekin itsutzeko. Ez gara daukagunarekin konformatzen. Badakigu non dauden gure gabeziak, gure ezintasunak, eta badakigu zer eskaini nahi dugun. Bide hori egin ahal izateko zure babes behar dugu. Zuk ematen diozu zentzua proiektuari. Zurekin beste hogeitau urte. Urrea balio duelako.

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaiako Udala



TOKIKOM

Indarrak **batzea** da bidea

Hogei urteko bidea egin dugu, baina ez dugu gelditzeko asmorik. Aurrera egiteko erronkak zehaztu ditugu eta dagoeneko lanean ari gara Baleike indartu eta komunikazio tresna eraginkorragoa izan dadin.

Duela hogei urte sortu genuen *Baleike* aldizkaria, hamar urte bete ditu dagoeneko baleike.com webgunean. Biak osagarri izan daitezten egin dugu ahalegina: Internet bidez jarraitzen diogu egunerokoaren gurgil zoroari; aldizkarian arnas luzeagoko lanak argitaratzen ditugu, irakurketa lasaiagoa, sakonagoa, eskaintzen dugu. Bi hankak errotuta daude dagoeneko, baina ezin uka Internetek azken bost urteotan izan duen eztanda. Lehen teknologia zaleen komunikazio tresna zen; gaur egun erabat zabaldua dago gizartean. Baleike.com-en bilakaera ikusi besterik ez dago.

Digitalizazioaren aroan murgildu gara, ia oharkabeen. Interneterako konexioa soinean daramagu uneoro. Edukiak sortu eta zabaltzeko aukera ematen diguten gailuak dauzkagu poltsikoan. Horrek komunikaziorako zabaltzen dituen aukerak ikaragarriak dira. *Baleike* hilean behin argitaratzen zen aldizkaria zen sorreran. Orain hori baino gehiago da, eta askoz gehiago izan beharko du teknologiak eta gizartearen premiek markatutako erritmoari eutsi nahi badio. Eta hori egiteko indar gehiago behar da.

Lehen erronka: 500 bazkide

Izan daitezke 500, 600 edo 700, baina Baleikek kultur elkarte gisa daukan lehen erronka da kide kopurua zabaltzea, oinarriak sendotzea. Gaur egun 350 bazkide ditu Baleikek. Urtean 40 euroko kuota ordaintzen dute, herriko komunikabideari babesa emateko. Bazkideei esker existitzen da Baleike, eta haiei esker milaka erabiltzailek dute uneoro baleike.com erabiltzeko aukera. Eta hala izaten jarraituko du zumaiarrek babesari eusten dioten bitartean. Eta zenbat eta jende gehiago batu, orduan eta tresna hobek, informazio landuagoa, aberatsagoa. Bazkide kanpaina hasiko dugu uztailan. Bazkide berriak erakartzeko, gainera, bazkide kluba sortuko dugu, hainbat abantailarekin. Aldizkariko azken orrietan daukazue informazio zehatzagoa.

Sektorearekin elkarlanean

Etxe barrua sendotzea funtsezkoa da, baina gaur egun ez da nahikoa. Hain dira zabalak teknologia berriek ekarri dituzten

aukerak, hain dira handiak erronkak, indarrak batzea beste aukerarik ez dago. Tokiko hedabideok gure burbuila partikularrean gordetzeko joera izan dugu, munduan bakarrak eta bereziak garelako sinetsi izan dugu.

Duela pare bat urtetik errotik aldatu dira kontuak. Krisia izan genuen akuilu ziurrenik. Bakarka txikiak eta ahulak gara, baina txiki asko batuta indar handia metatzeko kapaz gara. Eta horrela sortu genuen Tokikom, tokiko euskarazko hedabideen elkargunea. Tokikomak ahotsa eman digu erakunde publikoen aurrean, eta sektoreko hedabide handiaren parean jarri gaitu; hainbat lan elkarrekin eginda eraginkorrago izan gaitzkeela erakutsi digu (publizitatearen kudeaketa, adibidez), eta estrategikoak izango diren proiektuak ere martxan jartzeko gaitasuna eman digu (plataforma digital amankomuna). Elkartzeko egin dugu eta egiten ari garen ahalegin horretan, Baleikek ekarpen handia egin du. Tokikomeko hedabide txikienetakoa izanik ere, Administrazio Kontseiluan eta Zuzendaritzan aldi berean parte hartu duen hedabide bakarra da.

Saiatu gara, baita ere, eskualdean dauzkagun beste hedabideekin elkarlana sustatzen. Egitura sendoagoak behar ditugu gaur egun dauzkagun ezintasunak gaintzeko. Oraingoz urrats txikiak egin ditugu, baina bidea hor dago. Aipatzekoa da *Urola Kostako Hitzarekin* sinatu berri dugun hitzarmena. Apiriletik, astean bi orrialde argitaratzen dira Baleikek Zumaiari buruz landutako informazioarekin. Eta hedabide nazionalekin ere ari gara elkarlanean. Esate baterako, Tokikomen eskutik, Euskadi Irratiko *Mezularia* saioan txoko bat daukagu hilean behin Zumaiako kontuak lau haizeetara zabaltzeko.

Plataforma digital berria

Orain arte hedabide bakoitza ibili gara gure webgune propioak garatzen, hiru edo lau urtetik behin inbertsio handiak egiten; eta, hala ere, ezin teknologiaren abailari jarraitu. Ahalegin ikaragarria eskatzen du horrek eta luzera begira ez da bideragarria. Tokikomen batuta, guztiontzat baliogarria izango den plataforma digitala garatu dugu. Teknologia amankomun horren ganean sortuko dira tokian tokiko webguneak, bakoitza bere ezaugarriekin. Abantaila sekulakoa da. Inbertsioak eta hobekuntzak elkarrekin landu eta garatuko ditugu, eta sarean antolatuta elkarrekin produktu berriak sortzeko aukera izango dugu.

Horregatik, udazken aldera, baleike.com Tokikomen plataforma berrira egokituko dugu. Hasierako inbertsioa handia izango da, baina zalantzarik ez daukagu aurrera begira merezi duela. Webgune berriak bi berrikuntza nabarmen ekarriko ditu:

Sareko komunitate dinamikoa garatzeko tresna, alde ba-



▲ EGINDAKO LANARI SARIA

Azken urteotan, Zumaiatik kanpo ere jaso du Baleiketik egindako lanaren aitortza. Sari handiena, 2010eko Rikardo Arregi kazetaritza sari nagusia izan zen, herri komunikabide batek jasotzen zuen lehen aldia. Papera eta Internet erabiltzeko modu berritzaileak eta lanaren kalitatea goraipatu zituen orduan epaimahaia. Gero, 2011, 2012 eta 2013an Caf-Elhuyar zientzia kazetaritzako saria jaso dute Baleiken argitaratutako lanek.

etik. Hau da, gure Facebook propioa, nolabait esateko. Tresna bikaina da herriko talde, elkarte eta norbanakoei ahotsa emateko, albisteak norberak zabaltzeko, iritziak plazaratzeko. Anonimotasunaren garaia atzean utzi eta parte hartzea berreskuratzeko tresna izango da. Gainera, gaur egun dauden sare sozial, blog eta webguneekin automatikoki lotzeko aukera emango du, lanak ez bikoizteko.

Bestetik, herriko merkatariei zuzendutako gida komertzial integrala. Herriko merkataritzak lehen unetik babestu

du Baleike eta guk orain eskura daukagu Interneterako jauzia egiten lagunduko dien tresna eraginkorra.

Proiektu berriak

Aipatutako horiek dira orain lantzen ari garenak. Baina da-goeneko buruan dauzkagu hurrengoak: bidegintzan jauzi handi bat egin nahi dugu, Zumaiako wikipedia martxan jarri, aldizkaria berri, eskualdeko hedabideekin elkarlanerako urrats sendoagoak egin...

Baleikeren hedadura

3.500 irakurle ditu hilero Baleike aldizkariak, Aztikerrek 2011n egindako azterketaren arabera.

Baleike.com-ek 200.000 bisitari izan zituen 2013an; aurten, lehen bost hilabeteetan, ia % 22 igo da bisitari kopurua.

3.314 lagun eta 540 jarraitzaile dauka Facebooken, eta 801 jarraitzaile twitterren.



(B) Diru (B)eltza,
etorkizun (B)eltza



“A” gizartea lortzeko eskatu beti faktura

Faktura eskatzen duzunean, ziurtatzen ari zara zure diruaren zati bat guztion ongizaterako izango dela. hezkuntza, azpiegiturak, enplegua eta gizarte zerbitzu bihurturik.

ZATOZ EKONOMIA
GARDENERA

www.ekonomiagardena.net

 **Gipuzkoa**
BERRIA

Casa BASUSTA

CASA
BASUSTA
LORATEGIA

Ezkontzak, Bataioak, Jaunartzeak,
Lore-zentruak, Koroak,
Landare naturalak eta artifizialak,
Zeramika-lanak eta zumezko saskiak

Etxez etxeko zerbitzua

Santiago auzoa, 18 TEL: 943 862611



*Kalitatezko
produktuak*

*Gipuzkoako
Okelaren
Ziurtagiria:
GI-OKELA*

ZUMAIA
Basadi auzategia, 4.
Tel./Faxa: 943 860 621

ZARAUTZ
Salegi kalea, 14.
Tel./Faxa: 943 890 215

Juanjo Larrañaga harategia





Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

7 MARES izotzak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943 862 309



Aia! auzategia 8
20750 Zumala (Gipuzkoa)
Diseinu zerbitzuak
tel.: 943 14 31 22
Kopiak eta materiala
tel./Faxa: 943 14 31 20
www.a3zumala.com
a3@a3zumala.com

a3 kopia eta diseinu zerbitzuak




LIBRURU DENDA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943 861 569

Egin zaitez **BALEIKEKO** bazkide



ALBERDI
dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

696 726188
943 143261

Egin zaitez **BALEIKEKO** bazkide




ALGORRITABERNA

ERREINA KALEA, 2 - ZUMALA



Ignacio Zuloaga enparantza
tel. 943 861 157 anaestekozapiak@telefonica.net

ILEAPAINDEGIA



Di'Ana

Kantauri plaza, 6, behea tel. 943 117 406

Ardantzabide
ALTZARIAK-AROZTEGIA

www.ardantzabide.com

Erakusketa: Hego kalea, 4-5
Denda: Txomin Agirre, 4 Auzotegia: Santiago, 40
Tel.: 943 862 532 Tel.: 943 861 631

ARGISUN
ENERGIA-KONPONBIDEAK

- Berekuntza sistemak
- Giroetzea
- Inurgintza
- Energi berriztagarriak
- Eraginkortasun energetikoa

Basadi auzategia 5
tel. 943 861 995

www.argisun.com
info@argisun.com




OKINDEGIA of the House

Naiztoa, 2 • tel. 943 861 501
ZUMALA

OGI-IDEEN



ARRUTI
Baltasar Etxebarri 2/8
Zumala 943016429



AUTOS ZUMALIA

Urola plaza, 3-5 tel. 943 861 485



Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L.

San Isidro, 25
20749 Aroa tel./faxa 943 148 306
bakun@euzkalnet.net



Basodi albaitaritza

Ribaitaria
Itzi Garmendia

Basodi, 7, behea - tel. 943 143 310
www.basodi.net
www.basodi.es

Goluz: 11-13 / Armatzok: 15-19.26 / Autokiden goluzen eta lekurabeteen kalda
Lantokibako: 605 726 707 Itxiu utziako zerbitzua



BASUSTA
erretegia • asador

Petxita Etxezorrela, 25
20750 Zumala (Gipuzkoa)

Tel.: 943 86 20 73
943 86 04 38
asadorbasusta@hotmail.com



Braky's
Okindegia Kaketegia

Izaga kalea, 2
20750 Zumala (Gipuzkoa)
Tel.: 943 57 07 79
Móvil: 649 967 289

BALEIKE SEKTOREAREN BEGIETAN

Azken urteotan euskarazko hedabideekin harremanak zabaldu eta sendotu ditu Baleikek, elkarlanaren bidetik. Sektoreko zenbait ordezkariaren iritziak bildu ditugu jarraian.

MIKEL **IRIZAR** | Tokikomeko lehen presidentea

Zumaia hurbil

TOKIKOMen lehendakari ibili naizen urte parean oso lankide onak izan dira Gorka Zabaleta eta Baleike. Hasieratik inplikatu zen Baleike dinamika berrian, Gorkaren dedikazio zati bat eskainita, eta gure mutila bete-betean aritu da Administrazio Kontseiluan eta Zuzendaritzan, daukana ematen: sendotasun profesionala, zorroztasuna irizpideetan eta ilusioa ekintzarako. Gainera, beti izan dugu eskura Alondegia, eta, bilerak aitzakia, otordu bat baino gehiago egin dugu taldean herriko jatetxeetan; Gorkak ere bazkari goxoren bat prestatu digu soziedadean. Total, bi urte pasata lagun ona dudala Gorka, bazkide primerakoa dela Baleike TOKIKOMen eta oso hurbil sentitzen dugula denok Zumaia. Mila esker horregatik eta zorionak urteurrenean!



IBAN **ARANTZABAL** | Goienako zuzendari nagusia eta Hekimeneko presidentea



Anbiziotsu izateko unea da

20 urte? Redio! Oso, baina oso gogoan dut hasiera hura... Bai, bai, Gazte Batzordeak Baleike ateratzen zueneko. Bateratsu hasi ginen Goibekokalerekin. Gerora sortu genuen Goiena. Baleike ere, bixi dabil. Baliotsu da euskaldun, ia euskaldun eta erdaldunendako ere bai (aparece mi nieto en el Baleike ez duzue entzun-edo?).

Eta orain zer? Ba, are anbiziotsuago izatea tokatzen da, eragin esparrua handitzea, eraginkorrak izatea, inguruko hedabideekin batera jardutea, hasteko.

Gertuko hedabideok batzen gaituen Tokikomi bultza egiten ere aritu da Baleike eta zelan bultzatu, gainera! Sarea egite horrek ere lagundu du nazio mailako Hekimen elkarteak sortzen. Demasa da ekipo humanoak egin duen lana! Bejondeizuela zumaiarroei eta eutsi goiari! Zer dira, ba, beste 20?

Horrela baleike!

Zumaiako usaina eta kale hotsa etxera ekartzen didana. Horixe da Baleike “denboraldiko zumaiarrontzat”. Zaindu beharreko zorte handia da halako kalitatezko aldizkaria eta webgunea eskura izatea. Herriaren biograforik onena, momentuan adina estimatzen dira urtetara noizbait berritasunik ekarri zuten gertakari haien argazkiak, erreportajeak, elkarrizketak, bideoak. Zumaia (ez gutxitan) Euskal Herrian albiste bihurtzen denetan, Baleike da lehen lerroko informazio iturri: kirol markak direla, denboraleak eraman zuela, itsas ugaztunak ekarri zituela, flyschak bizi izan zuela, artistak adierazi zuela... Urte askoko bizi emankorra desio diot, eta era guztietako zumaiarrok gozatu adina bultzatu dezagula, diruz lagunduz, publizitatea jarriz, bertan idatziz, informazioa bidaliz, edo besterik ez bada, egun arruntegietan albiste bihurtuko diren endredoak sortuz!



20 URTE

URKO **ARISTI** | ETBko eguraldi saioko zuzendaria eta Tokikomeko presidentea



Taosa

Twitter bidez izan nuen taosaren berri. Gustatu, eta beste txoritxoarenean ere haren gainean ari beharko genukeela, eta hortxe hasi nintzen peskizan. Argi nuen zein ate jo. Erantzuna, baiezkoa, noski! Hitzaren gaineko azalpenak ez ezik, irudi sorta bikaina ere eman zidaten. Erdarazkoa euskaratu beharrean, eguraldiaren gaineko hiztegi propioa bultzatzeko ahaleginetan ari gara gurean, geure-geureak direnak berreskuratuz. Lekeitiarrek “traganarrua” erakutsi ziguten, eta zumaiarrek “taosa”. Bertakoa. Pixkanaka kostaldetik abiatu eta barrurantz doana. Horixe da Baleike. Tokikomen bultzatu nahi dugun hori, baleikeela erakutsi diguna. Txikitik abiatuta, sarea osatu, eta Euskal Herri osora zabaldu bedi beraz Zumaiako taosa. Bejondeizuela!

AINHOA **ETXEBESTE** | Euskadi Irratiko Mezularia saioko zuzendaria

Baleike mezulari

MEZULARIA eta TOKIKOM, BALEIKE eta MEZULARIA

Hurbilekoak gure egunerokoan daukan garrantziaz jabetuta Tokiko hedabideekin elkarlanean hasteko aukera izan dugu aurten Euskadi Irratian eta horren isla da *Mezularia* saioan astelehen arratsaldeetan “Tokikom gauzekin” osatzen dugun solasa. Plaza horretara hurbiltzen da Baleiketik Gorka Zabaleta eta azaltzen dizkigu Zumaiako herrian gertatzen diren gauzak. Bere begiekin ikusi eta bere belarriekin entzundako egiazko gauzak. Izan ere, badakizue: urrutiko intxaurrek...

Zorionak zuen lanagatik, Mezulariko taldearen izenean.



BEDUA
ITURGINTZA S.L.
ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMAILEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Kortu Indurtrigunea, 9
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
tel. 943 143 369

EGOKI



Ertoju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943 861 787



BEHEKO PLAZA
taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

BERRITUA

Eusebio Gurrutxaga plaza
Tel. 943861700



EKAIN
SAGARDO EKOLOGIKOA

www.ekainsagardoa.com • Tel.: 943 148 033

ekin
Eteknologia S.L.

Erribera kalea, 6 20750 Zumaiá tel. 943 143 007
ekin@ekin.com www.ekin.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

BEEP **DIGITAL+**



ERNIO TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943 860 045



ERROTA
OPIL-OKINDEGLA
SANTILLO AUZOA, 32
20750 ZUMAIA
TEL: 943860000
943860612
FAX: 943860977
errot@errot-okindeglia.com

ERTZ INFORMATIKA

Portatila eta mugikorrek
konpontzeko zerbitzua

orange™ **movistar**

ONO **MÁSMÓVIL** **JAZZTEL**

Behoko plaza tel./faxa: 943 143 395

Galdona



burdindegia

Mendaro marina, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346
Juan Belmonte, 15 faxa 943 861 330



Ganbara
TABERNA

Juan Belmonte, 5 tel. 943 861 057



Garoa
kafetegia

Txomin Agirre kalea Tel. 943862181



GOIKO TABERNA

Erribera, 9 tel. 943 861 391

Ikastegi homologatua

Golden Gate
Institute
hizkuntz eskola



Erribera kalea 1 bis. behea
tel./faxa 943 865 020
goldengateinsti@telefonica.net

Egin zaituz
BALEIKE
GERRAKO BOST
DESACERTU
ALFARBU DITUZTE



bazkide

Egin zaituz
BALEIKE
GERRAKO BOST
DESACERTU
ALFARBU DITUZTE



bazkide

Egin zaituz
BALEIKE
GERRAKO BOST
DESACERTU
ALFARBU DITUZTE



bazkide



Baleike bidelagun

1994an, orain 20 urte, sortu zen Baleike. Uda hura AEBetan jokaturako futboleko Mundiala ikusiz igaro nuen, jaunartzea egin berri nintzen, Loiola 92ko kartelak errepide bazterretan zeuden artean, eta etxean banuen euskarazko herri aldizkaria hileru. Nik bezala, nire belaunaldikoek gainerakoek garai hartatik izan dugu pribilegio hori: *Maxizatzen* deitzen zen nirean, *Uztarria* besteren batzuetan, eta *Baleike* zumaiarren artean. Gurekin batera, gure ondoan hazi eta garatu dira herri aldizkariak; hamarkada bat gazteagoekin, aldizkariak ez ezik, baita haien bultzadaz sortutako *Hitza* ere. Urtez urte aurrera egin dute tokiko euskarazko komunikabideek. 20 urte *Baleike*ek, 10 *Hitzak*ek, eta aurretik, bien arteko elkarlana abiatu dute, poliki baina sendo. Norabide berean joanda, horixe delako naturalena. Bidelagun pribilegiatua du *Hitzak*. Zorionak eta urte askotarako!

IBAN **ARREGI** | Berria Taldeko kontseilari ordezkaria

Herri informazioa seguru dago Zumaian

20 urte, ez da marka makala. 20 urte herriko kontuen berri ematen. Euskaraz. Dozena bat urte izango dira aurreneko aldiz Baleikeko lagunekin bilera batean topo egin nuela, eta harrezkero zenbat bilera, zenbat ariketa, zenbat eztabaida eta erabaki. Ezagutu dut urteotan haien jarduna, eta ekibokatzeko arrisku handirik gabe esango nuke euskarazko herri informazioa seguru dagoela Zumaian. Izan ere, nire ustez edozein sektorek behar-beharrezko dituen lau baldintza betetzen ditu Baleikek: 1) Komunitatean txertaturako proiektua da; 2) kalitateko produktua egiten da; 3) prospektiba ariketak egin eta berritzeko eta moldatzeko erabateko jarrera du; eta 4) ikuspegia zabaldu eta elkarlan dinamika oso txertatua du bere adn-an. Zorionak eta bizi euskaraz!



EIDER **CARTON** | Elhuyar aldizkariko zuzendaria

Zientzia gaietan aliatua

Zientziak aliatuak behar ditu jendearengana iristeko, eta aliatu horien artean funtsezkoak dira komunikabideak. *Baleike*ek, zientzia-gaiei eskaintzen dien tokiari esker, *Elhuyar* bezalako aldizkari espezializatuak iristen ez diren pertsonengana hurbiltzen du zientzia, dela zumaiarrek etxean bertan dutenari etekina atereaz, flyscha eta hango harrietan gordetako Lurraren historia, dela Zumaiatik oinarritzeko partikulak ikertzera irten, eta unibertsoaren sorreraren berri ematen diguten fisikariak protagonista bihurtuaz. *Baleiker*en lanak frogatu du herri aldizkarietan ere erakargarri eta sakon landu daitezkeela zientzia gaiak. Eta CAF-Elhuyar sariak hala aitortu diote, zientzia kazetaritzaren arloko sariaren bidez, hiru urtez jarraian. Bejondeizuela!

HOGEI URTE ZUMAIARREN EGUNEROKO BIZITZAN

Zumaiari eta zumaiarrei buruzko berriak zabaltzeko sortu zen Baleike. Hogei urteko ibilbidean izan ditu bere gorabeherak, egin du estropezu behin baino gehiagotan, baina ezin uka zumaiarren eguneroko bizitzako parte bihurtu dela.

AMAIA **MANZISIDOR**

Aldizkaria baino askoz gehiago da gaur egun

Baleikek Zumaiari ekarpen handia egin dio urte hauetan guztietan. Betidanik ezagutu dugu aldizkaria etxean, txikia nintzenean argazkiei gainbegirada emateko edota tarta nork irabazi zuen ikusteko besterik ez nuen erabiltzen. Gaur egun, ordea, nire eguneroko bizitzaren parte da, teknologia berriei esker aldizkari bat baino askoz ere gehiago bihurtu da. Nik bezala, jende askok egunero dugu zumaian gertatzen denaren berri, webgunean edo sare sozialetan Baleikek egiten duen lanari esker. Herritarron erreferente bilakatu da, Zumaian edozer gertatuta ere berehala jotzen baitugu Baleikera informazioa eskuratu nahian.



ALEX **OLIDEN**

Zumaia ez dago ulertzerik *Baleike* gabe



Sentsazioa daukat *Baleike* gabe Zumaia aspalditik ez dagoela ulertzerik, hain dago sustraitua, hain presente bertakoen bizitzan... 20 urte pasa dira eta hor segitzaek meritu handia du, baina zumaiarrok sentsazioa daukagu betidanik dagoela hor, Sanjuaniturri

bezala. Zumaiarrontzat erreferente bihurtu da eguneroko informazioa jasotzeko, kalitate handia ematen du aldizkarian, baina baita Interneten ere. Uste dut oso zaila dela askoz hobeto egitea.

JOSE ANTONIO **TXIKI GOROSTOLA**



Hungariatik lehen bideoak

Urteak dira *Baleikeko* kazetariekin harreman estua daukadala. Itxas-Gainen lanean ibili naizenetik, ondoan izan ditugu beti. Atzerrira joan garenean ere bai. Gogoan daukat Frantzian, Hungarian eta Txekiar Errepublikan izan zirela gurekin, segimendua bertatik bertara egiten. Hungariako Mundiala berezia izan zen, gainera, lehen aldiz Internet bidez probetako bideoak zabaldu zituztelako eta horrek ikusmin handia sortu zuen herrian. Orduz gozotik oso harreman estua izan dugu.

XABIER **ALVAREZ**

Kultur munduko taldeak bilduko dituen plataforma

Baleike Nola sentitzen dudana... Buelta batzuk eman dizkiot eta ikusten dut Zumaia duen erreferente kultural garrantzitsuena. *Baleike* izan daiteke Zumaian kultur munduan dabilen taldeak bilduko dituen plataforma edo elkarte handi bat. Alde batetik, aldizkaria du; bestetik, webgunea, eta oso garrantzitsua iruditzen zait edozeinek jasotzea daukala informazio guztia eta egunean bertan. Horiakin, Zumaian bizi ez garenok, nahiz eta zumaia irakur, momenturo jarraitzen ditugu herriko albiste kultural guztiak eta hori oso inportantea da niretzat.



JOSEBA **ESNAL**

Herriak barrenean darama *Baleike*



Nahiko meritu badu. 20 urte azkar esaten da, baina halako aldizkari bat herri mailan egotea, nik, zumaia bezala, oso ondo ikusten dut. Eta ez da erraza. Proiektu asko ikusi ditut gogo handiarekin hasi baina gero porrot egin dutenak. Askok baloratzen dudana da aldizkaria

euskaraz izatea. Jorrazten edo azaltzen diren gauzak herrikoak dira eta askotan *Baleikeren* bidez enteratzen gara. Nik uste *Baleike* herriak barrenean daramala.

MONTSE **ARANA**

Pazientziaren arrakasta



“Geure ahalmenetan sinesten badugu, etengabeko lanarekin eta pazientziarekin arrakasta lortzen da”. Horixe da *Baleike* aldizkariaren taldeak hogeitau urte hauetan egin duena. Sorreran izan zirenak eta urte hauetan bere ahalegina egin duten guztiak zorionak.

Zorionak eta eskerrak egin duten lanagatik.

PELLO **RUBIO**

Lasai hitz egiteko konfiantza

Publiko egin zenean gure baserrian elkarrizketak izan zirela Ezker Abertzalearen eta sozialisten artean, eskaera asko jaso nituen etorri eta elkarrizketa egiteko, Espainiako telebista kate handietatik ere bai, baina ezezkoa eman nien guztiak. Bi komunikabide baino ez nituen hartu orduan Txillarren: Elgoibarko *Barren* eta Zumaia *Baleike*, biak gertukoak nituelako, eta lasai hitz egiteko konfiantza ematen zidatelako. Elgoibarko Txillarre baserrian bizi naiz, baina ni zumaia irakur, hala sentitzen naiz, eta niri *Baleike* herriaren berri izateko aukera ematen dit. Horregatik naiz bazkide.



ESTI **IRURETA**

Oso zorrotza da *Baleike*




Zumaiako albiste guztiez *Baleiker*en bidez jakiten dugu eta hori zumaier guztion sententzioa dela uste dut. Denok enteratzen gara hasieran *Baleiker*en bidez. Horrek asko esaten du. On line plataforma oso potentea eta dinamikoa du, eta albisteak segundora jasotzen ditugu. Gero,

aldizkariak 20 urte bete ditu eta gogoratzen dut nola egoten ginen zain ea noiz aterako zen. Lehen hilero aldizkariaren zain egoten ginen bezala, orain plataforma horretara mugitu gara eta ez dugu zertan kioskoaren zain egon beharrik. Oso zorrotza da *Baleike*, saritua izan da eta ez da edozein moduko aldizkaria. Nahiz eta herri aldizkaria izan, goi mailako kazetaritza eskaintzen du. Garai txar hauetan, diru laguntzen mozketekin, nik uste denok lagundu behar diogula halako komunikabideari.

UNAI **AIZPURUA**

Ondare kulturala eta herriko bizitzaren alde positiboa



*Baleiker*en garrantzia, informatzeaz gain, euskararen alde egiten duen lanean dago.

Ondare kulturala da, eta herriko bizitzaren alde positiboa. Euskaraz dauden komunikabide gutxiak ixten badira... Beraz, eutsi egin behar zaio. *Baleike* sortu zenean ni ume bat nintzen, baina oroitzapen asko ditut. Etxean betidanik izan gara bazkide, eta estimua diogu. Esaterako, beti gorde izan ditugu aleak, eta handik urte batzuetara hartu eta ikustea nolakoa zen orduko Zumaia, zein albiste zeuden... polita da. Iruditzen zait orain profesionalagoa dela; elkarrizketa eta erreportaje sakonekin aldizkarian, eta webgune interesgarriekin sarean. Adibidez, otsailean, olatuen inguruan egin zen segimendua ederra izan zen. Bertan ezin zutenek egon argazki eta bideo ikusgarriak ikusi ahal izan zituzten web orrian. Horrez gain, antolatzen dituzten ekitaldiak, photocall-ak... bizitasuna ematen die herriari eta eskertzekoa da.

MARKEL **PEÑALBA**

Gazte mugimenduaren bozgorailu

Gogoan dut 2008a zela, unibertsitateko lehen urtea amaitu berria nuelako. Gogoan dut udara zela, hondartzatik jaitsi ginelako. Gogoan dut uztailearen 9a zela orain arte bizi izan dudana egunik zirraragarrietako bat eta esperientzia aberasgarrietako bat izan zelako. Gogoan dut, baita ere, Erkibera sartzera gindoazenerako *Baleike* han zela argazki kamara eta grabagailuekin. Horixe baita *Baleike*: gure herriko gertakari eta bizipenen arakatzailerik nekaezina, gertatu aurretik bertan egotera.

Baleike han egon nahi zuen, gaur den zuhaitz loretsu eta ederraren hazia erein zutenen oinordekoen egun handia zelako eta gazteok ere *Baleike* han egotea nahi genuen, *Baleike* jasotzen ez duen ezer ez delako Zumaiaren gertatzen.

Eta horixe eman dio, hain zuzen, *Baleike* gazte mugimenduari: presentzia. Izatea gazteok lortu genuen, baina *Baleike* izan dugu etengabeko bozgorailu, geuk ere herri honen parte izan nahi dugula aldarrikatzeko.

Horrela izan dadila hemendik aurrera ere!
ZORIONAK lantalde osoari!





BEÑAT LIZEAGA

Distantzia leundu zenidaten

Nik kristoren pribilegioa izan nuen Izpura eta Aranjuezeko puntatik zumaierrei mezu bana zabaldu eta herritarrengana gehiago hurbiltzeko. Hainbeste kilometro egiteko borondatea izan zenutelako. Horrelako momentu gogor eta berezietan zubi lanak egin eta muga eta kilometroak txikitu eta leundu zenituztelako. Kristoren zortea izan nuen zentzu horretan ere zumaier izateagatik.

Eta bai, esan ahal dut beharrezkoa eta eskertzekoa izan nuela Baleikek eskaini eta eskaintzen digun gertutasun hori, noski baietz. Herritik eta herritarrontzat, Zumaiaetik eta zumaiairrontzat. Bejondeizuela aldizkari horren atzean lanean zaudeten langile eta boluntario guztioi eta segi horrela!

Sentitu, pentsatu eta idatzi!

ANE EIZAGIRRE

Herritarren parte hartzeko aukera ematen du



Niretzat, *Baleike* erreferentziatzko komunikabide bat da, dudarik gabe. Nik egunero begiratzen dut herriko albisteen berri jakiteko. Nik uste herriko gaiak berdintasunez eta ondo lantzen dituztela eta, gainera, albiste eta azken orduko gertaerak

berehala argitaratzen dituzte. Herriarentzat komunikabide garrantzitsua da, gertutasunez lan egiten dute, gainera. Horrez gain, herritarrek parte hartzeko aukera eskaintzen du eta hori oso aberasgarria da. Nire zorionik beroenak lantaldekoei eta jarraitu horrela lanean!

JOXE AGIRRE

Egunero sartzen naiz Interneteko atarian

Ni, batez ere, Interneteko atariaren kontsumitzailea naiz. Egunero sartzen naiz bertan; izan ere, albisteak egunero berritzen dira eta hori oso baliotsua da. Aldizkariako edukiak ere interesgarriak izaten dira, batez ere, herriko kontu eta pertsonen berri jakiten baita sakonago. Hurbiltasuna du komunikabideak. 20 urte hauetan eboluzioa handia izan du: eduki aldetik, erreportaje eta elkarrizketa zabalak, diseinua... Erakargarriagoa da gaur egun. Dendari gisa, betidanik jarri izan dugu publizitatea; *Baleikeri* laguntzeko, eta guretzat ere ona baita. Hasieran, formatu txikikoak, baina badira 3 urte orrialde osoko iragarkiak jartzen ditugula. Horrek aukera gehiago ematen dit nik nahi ditudan edukiak jartzeko, eta hilero aldaketak egiteko. *Baleike* herrian dugun altxorra da. baloratzen jakin behar dugu, eta horretarako lan egin.



Zumaiatik gertuago sentiarazten nau

Baleike beti sentitu dut gertu. Gogoan daukat Reunion Irlako txapelketa irabazi nuenean ia egunero komunikazio zuzena geneukala, txapelketaren segimendua egiteko. Baleikeren bidez jakin nuen Zumaian ikusmin handia zegoela eta txapelketa jarraitzen ari zirela Internet bidez. Horrek sekulako indarra ematen dizu. Oso urruti egon arren, zumaiarren babesa oso gertu sentitzen duzu. Baleikek Zumaiatik gertuago sentiarazten nau. Informazioa lortzeko ere, kanpoan nabilenean, nahiz eta munduaren beste puntan egon, baleike.com irakurrita jakin dezaket herrian zer ari den gertatzen. Sekulako tresna da kanpoan ikasten edo lanean ari direnentzat”.



Egoera, molde eta tresna berrietara moldatzen jakin du



Herrian zer gertatzen den jakiteko nora jotzen dudana? baleike.com-era. Dударik gabe, gazte, nerabe zein helduentzat, herriko kontuen erreferente da *Baleike*. Webgune aktuala, erakargarria, txukuna, bisuala eta erabiltzeko erraza du. Eduki multimediak ditu oinarri eta hori da etxekoa gehien erakartzen duena: bideoak, argazkiak eta audioak gehigarri dituen albistea irakurri, ikusi eta entzutea.

Baina ez hori bakarrik, herritarrek parte hartzea ere animatzen ditu inkesta, albisteen iruzkin eta blogen bidez. Herritarren parte hartzea sustatzeko eta albistea berehala eta toki guztietara iristeko, sare sozialak ere erabiltzen ditu. 20 urteko ibilbidean, egoera, molde eta tresna berrietara moldatzen jakin du baleike.com-ek herritar guztiengana iristeko.

Herriarentzat lan handia egiten du



Herrian euskararen alde lan handia egin duen aldizkaria da *Baleike*: Irakurtzen hasi nintzen lehenengo aldizkarietako bat izango da, ziurrenik; bertan, herriko berriak, gertaerak, herritarren istorio eta “abenturak”... irakurtzen nituela gogoratzen naiz. Gaur egun, Interneten irakurtzen ditut azken orduko albisteak. Herriarentzat lan handia egiten duela iruditzen zait, gai eta talde ezberdinen inguruan aritzen baitira gainera. Zorionak, beraz, Zumaiaiko eta zumaiarren aldizkariari! Eskerrik asko egiten ari zareten lan bikainarengatik!



◀ GOGOBESETA
"Da gustu" digu Aita, "gustuko lehen
emaitza" daki Ramon Urteaga bertako
gogor lehia.

MARGARI **MURILLO**

Komertzioen telefonoak aurkitzeko oso baliogarria da

Webgunea ala aldizkaria? Nik nahiago dut papera. Gainera, dendan ere uzten dut ale bat, eta bezeroek, gehiago edo gutxiago, kasu egiten diote *Baleikeri*. Estimua diote! Webguneko albisteak, berriz, nire korreoa jasotzen ditut, eta asko eskertzen dut. Azkenean herriko albisteak dira, eta denoi interesatzen zaizkigu.



Denda ireki nuenetik jartzen dut publizitatea bertan, beti etortzen da ondo. Gainera, komertzioen telefonoak aurkitzeko oso baliogarria da aldizkaria. Zerbait gaineratzekotan, denborapasa batzuk jarriko nituzke.

IÑAKI **OSA**

Miamira ere iristen da *Baleike!*

Eneko Dorronsorok eman zidan ideia, eta nik gustura hartu nuen: Miamira ere iristen da *Baleike!!!* Egia da, bazkidea naiz, eta oso gustura jasotzen dut hilero aldizkaria. Horrela, herriko albisteez enteratzen naiz, eta, noski, herritik gertuago egotea sentiarazten dit. Gainera, ni neu ere aldizkarian ateratakoa naiz. Gogoratzen naiz profesionala egin nintzen aurreneko urteetan ez zidala grazia handirik egiten niri elkarrizketaz, gazteagoa ere banintzen... Baina orain errazago eramaten dut komunikabideetan ateratzearena. Aipatu behar dut, hala ere, nitaz hitz egin denean, gehienbat, Euskal Herrian jokatu ditudan partidez izan dela. Ameriketako ibilbidea oso gutxi aipatu da, eta herriko beste pilotariez gutxiago hitz egin da. Polita izango litzateke Zumaiako beste pilotariei ere elkarrizketa batzuk egitea: esate baterako Beñat, Luis, Zinkunegi, Urbieta, Korta, Beristain, Peio, Aguirre, Osa, Mugerza anaiak... Nire ustez, herriko jendeak gustura irakurri lituzke horien bizipenak eta zumaiarren denboraldiak nolakoak diren Ameriketara!



XABI AIZPURUA

Herri kazetaritza independentziaz egitearen meritua



Gaurkoan ere parrastadan idatziko dut artikulua. Barrenetik braustaka baletor bezala. Memoria astintzea tokatzen da gaurkoan eta *Baleiken* idatzi nuen lehen artikulua izenburua etorri zait bat-batean: "Oikia ez da Zumaia". Googlen jarri eta, ttak! Horratx. 2001.

Irribarre txikiak irten dit ezpain ertzetik; hura zen, hura, norbere identitatea bestearekiko desberdintasunean eraikitzeo irrika. 19 urte bete berriak eta kazetaritza ikasten, ilea kizkur-kizkurra..., alegia, ilea neukala! Arrangoleta zenaren atzeko soto batean sartuta: Argi, Kattan, Antxoka... Hura zen gure erredakzioa, huraxe geure petit comité propioa. Eta zenbat ikasi nuen... bizitzaz! Gero etorriko ziren Lisboatik idatzitako orgasmus gutxiko erasmus kronikak. Eta, ondoren, iritzi zutabeekin beti atximurka non egingo... Oraindik ere, zakar itxurako abeslari bihozbera batek sarri gogorarazten dit nola kritikatu nuen tabernetan pantailak eta bideoklipak goragalea eragiteraino sartu zizkigutela. Hori eta beste hamaika kontu, astunak eta arinak, txorakeriak haietako asko, eta hausnarbidea jartzeko asmoa zutenak ere ugari. Baina *Baleikek* sekula ez dio jarri mugarik zerbait adierazteko nahiari; nik, behintzat, horrela bizi izan dut, eta biziki eskertzeko kontua dela iruditzen zait. Izan ere, sekula ez didate ezer atzera bota, ezta aldatzeko eskatu ere; eta hori gutxi balitz, beste eragileren batek zentsuratutako testua webgunean zintzilikatzeko aukera ere izan dut (ikus "Instintuen institutua"). Bejondeizuela! Zorionak Kaxianoren doinuak eta muxuak mingainarekin. Nahiz eta sarri lagunak haserretzeko besterik ez duen balio, herri kazetaritza independentziaz egiteak meritu handia dauka eta irakurleen benetako konfiantza horrelaxe irabazten da. Aspalditik erakutsi du hori proiektu honek, hainbaten bizkarrak eta muturrak ikusi arren. Ezin zitekeela zioten, baina, bai, baleike.

IÑAKI AGIRREZABALAGA

Zumaia ezagutarazteko bidea zabaldu du



Era batera edo bestera Zumaia harrigintzan jarduten dugunok ezin genezake ulertu gaur egungo herria *Baleikerik* gabe. Orain dela 20 urte egin zen apustuak emaitza ezin hobek eman ditu. Izan ere, urte hauetan, arlo komunikatibo eta teknologikoak salto handia eman dute, eta, ezbairik gabe, *Baleikek* zuzeneko neurriak hartu ditu urte horietan. Egun, herriko gertaerak era zuzen eta azkar batean jakiteko aukeraz baliatzen gaitu. Eguraldi edo itsas denboraleen segimendua, mundu mailan herriko kirolarien segimendua, herriko arazo laboralen segimendua, festen segimendua edota, nola ez, alderdi politiko bakoitzak esaten duenaren segimendua... Adibide horiek, gaur egun, *Baleikek* duen arrakastaren zergatietako batzuk dira. Hori ezin ulertu, ordea, atzetik hori posible egiten duten profesionalen lanik gabe. Beraien lanari esker, zenbait unetan herriko mugak gaingitu, eta Euskal Herriko komunikabideetan beraien lana ikusteko aukera egon da, bide batez, Zumaia ezagutarazteko bideak zabalduz. Aitortza hori jaso dituzten sarietan islatu da. Eta hori guztia gure ohiko hizkuntzan: euskaraz. Bejoakie nire zorion eta besarkadarik handiena *Baleike* posible egin zuten eta duten guztiei!

LUIS MARI GOIKOETXEA

Aurrera jarraituko dut bazkide bezala




Urte pila da bazkide egin nintzela, ez dakit zenbat izango diren. Uste dut gauza interesgarriak ekartzen dituela eta gustura irakurtzen ditut herri mailako gauzak. Hori garrantzitsua da, askotan ez garelako enteratu ere egiten herrian zer pasatzen den. Denetariko gaiak jasotzen ditu eta oso gustukoa dut. Urtero hobekuntzak egiten joan da, gauzak aldatzen. Nik, behintzat, aurrera segituko dut bazkide bezala batere problemarik gabe.

JON **URBIETA**

Zumaiako informazioa jakiteko erreferentzia bikaina

Oso txikia nintzen nire eskuetara lehendabiziko aldiz *Baleike* bat iritsi zenean. Orduan, gogoratzen dut aldizkariak txuribeltzean zituela atal batzuk eta niretzat gustukoena inkesten txokoa zen, non herritarrok gure iritzia emateko aukera genuen. Geroago, teknologia berrien garaian, web orrian sortzen ziren liskarrak eta ezizenez beteriko komentarioekin sortzen zen eztabaida asko gustatzen zitzaidan. Orain, ordea, hori guztia aldatu egin da. Orokorrean, beraz, lehengo *Baleike* zaharra gustatzen zitzaidan, baina horrek ez dizue kentzen meriturik zeren lantalde polita duzue eta herritarrontzat, Zumaiako informazioa jakiteko, zuen orrialdea erreferentzia bikaina delako. Beraz, zorionak eta beste 20 urte beteko dituzuelakoan, segi horrelaxe!



denda:

Mendaro marinela, 1
tel.: 943 143 346

biltegia:

Jose M^a Korta Industrigunea
Pab. A6.1, 2-5 mod.
tel.: 943 861 117
fax: 943 861 330

industriarako nahiz etxerako
era guztietako material, tresna, pieza eta osagarriak

BALEIKE MAKING OF



FORONDA PALACE. TUESDAY. 19:25 P.M. ■



SUPER HEROI OSPETSUENAK
KAZETARITZA MUNDUAN EZKUTATZEN
DITUK ... PETER PARKER "DAYLYBUGLE"
KO ARGAZKILARIA DEK ... ETA CLARK KENT



"DAILY PLANET" EKO
KAZETARIA ...
GUK ERE BAT
BEHAR DIAGU!
...



ONA!!



SUPER ELIVYARIN
HI, NIK BI SARI
ZEUZKEAT ...
ESAN ALDIZUET?

....
ASPALDIAN HASITAKO
IKERKETAN OINARRITU NAUK
ETA AZTARNA INTERESGARRIA
AURKITU DIAT "PLETOREXIA"
PELIKULAN!! SUPERHEROI
DIRENEZ...BADUTE FILM A!



NESKATXIKIAK



Cure-Txokoa
aberna



Upela plaza, 4
20750 Zumala
Tel.: 943 86 09 70

English School
Harvest

MATRIKULA DOAN
...eta udaran Ingalaterrara Ingelesa praktikatzera
www.academiaharvest.com
harvestitziar@gmail.com

San Jose, 11 bis
tel. 943 143 534

API
Ibaigain
inmobiliaria

Teomin Agirre 4, behea
elena@ricardoazcue.com
tel. 615 793 406 / 943 862 651
fax: 943 862 748

www.ibaigain.com

ilarzi



Alai auzategia, 2
Tel. 943 24 50 20

**INPERUPE
ELKARTEA**



Erribera kalea 16. Tel. 943 861 523

iriondo optika

Kantauri plaza, 8, Zumala. tel.: 943 86 04 86
Nagusia, 53, Azkoitia. tel.: 943 85 19 84

IRUITZ



leapaindegi Mistoa

San Telmo, 12 • 20730 ZUMAYA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 860 760

TXALAPARTA
OPARIAK

Anglin Suroa, 2
20750 ZUMAYA
Gipuzkoa
tel. 943 943 089
fax: 943 430 637

Itzurun, S.L.
Aroztegia

Atak, linoak, terrak, arrainu enpuztuak...

Rzurun Zuhaitzidea, 2 behea
Tel./ Fax: 943 86 16 65

ORRAZTEGI ZUMAI



943 862 083

JUARISTI
jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Betea 3. auzategia, 10 tel. 943 861 853

Xaia

Pintxoak eta otartekoak



Teomin Agirre kalea, 8

KABI Parota Elizatekoa, 13
943 117 427



Kaithermik S.L.



Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943860320

kalari



Upela plaza, 8
tel. 943 862 517

PAPER diseinu grafikoak

Roberto Gutierrez
696 211 111 • rgutierrez@rgutierrez.org • www.rgutierrez.org

Kresala
Taberna



Julio beobide 3, tel. 943 019 869

Zorionak Baleike!

Doinua: Xabier Leteren Habanera



(1)
Baleike aldizkaria
beteaz urteurrena...
Oraingoan datorkigu
ospatuz hogeigarrena.
Hosto berriz loratzeko
ez da biderik txarrena
zuhaitza ureztatzea
sustraietatik barrena.
Sortzaileen meritua...
asmatu izanarena,
lan taldearena aldiz...
ondo egitearena,
babeslerik ekarpena
jakiñik haundia dena,
ez dezagun gutxietsi
irakurle bazkidena.

(2)
Denekin izan nahiean
bizi harreman zuzena
bete ohi da hileroko
konpromiso Jesusena.
Bi mila eta bikoan
osatu gabe dozena
gelditzeak eraginik
bildur ikara ozena.
Aurreikusiz erronka
haundia izango zena...
ez ote zitzaion jarri
daukan "baleike" izena.
Ugaztunen antzera du
luze irauteko sena,
buruz gora mantenduaz
buruz bera jaio zena.


(3)
Gertatuaren lekuko,
ez ustearen zirrara.
Landutakoan emaitza,
bizitzari begirada.
Urrats berrien atari,
amets gozosen parada,
kontsigna berdiñarekin:
baleike baina zaila da!
Bitarteko eta ardatz
ama hizkuntza euskara,
geranaren ezaugarri,
denaren bizi taupada.
Lasaia arnas hartzen
hasi denan bihozkada
egizkoa izan bedi!
Bagara edo ez gara!

(4)
Herriaren zerbitzura,
herritarren lanarekin,
euskeraz egitearen
baldintza bakarrarekin.
Giza legea oinarri,
elkartasuna etekin,
pertsona errespetatuz
trataera on batekin.
Zuzen norbere bidean,
eta lana ondo egin,
arinkeriz jokatzera
ez dator bat Baleikekin.
Egindakoa asko da!
Jarraitu egiten berdin!
Izanaz ahaztu gabe...
Izaten jarraitu dedin.

OIER AIZPURUA

Hasieratik jarraitu dute nire ibilbidea

Gurea bezalako kirol txiki batentzat oso garrantzitsua izan da Baleike herritarrengana iristeko. Beti sentitu ditugu gertu eta ahalegina egin izan dute txapelketa handietara etortzeko eta bertatik bertara kontatzeko. Zumaiarentzat oso garrantzitsua da horrelako komunikabide bat edukitzea, bertakoa, eta, gainera, euskaraz. Pertsonalki, nire ibilbidean atzera begiratuta, ohartzen naiz hasiera-hasieratik jarraitu nautela. Lehengo batean neure burua ikusi nuen 2000ko aldizkari zahar bateko azalean. Aspalditik naiz ni Baleikeko bazkide.



Herriari lotuta dagoen ikono bihurtu da



Ezagutzen al dek *BALEIKE?*
BALEI... ze?

Bai, Zumaiako aldizkari berria
Aldizkaria eta izen horrekin!!! Itxurazkoa ote da?
(Baleike)

Gaur egun, hasiera bateko bi lagunen arteko
elkarrizketa hau imajinaezina da. Haur, gazte,
heldu aitona-amon, zumaia orok ezagutzen dugu
BALEIKE. Eta ez hori bakarrik, zumaia askorentzat
herriari lotuta dagoen ikono bihurtu da, harraldea,
Aita Mari edota Paola bezala, sarritan “bisitatzen” edo

“pasaran” ikusten ditugulako.

Argi dago aldizkariaren arrakasta adierazle bat baino gehiagorekin neur
dezakegula. Nik lortutako dimentsioaren adierazlea azpimarratuko
nuke. Hau da, 20 urte hauetan lortu duen hedapena, herritarren artean
barneratzea, herriko berriak jakiteko erreferente izatea, Zumaiako ondarea
pertsonen testigantza edo monografikoen bidez biltzea... Eta dena euskara
hutsez.

Beraz,

Itxurazkoa? Bai, motel.

Herritarrek egindakoa, herritarrentzat, herritarren laguntzarekin,
herritarren eta kanpotik etortzen direnen testigantza, jakinduria, egindako
lana ezagutzera emateko eta biltzeko oinarria, freskoa, eguneratua, berriak
berhala jakiteko gunea, euskara eta euskal kultura sustatzeko hedabidea.
Eta oraindik zalantzak badituk/n, “Bisitatu/irakurri” *BALEIKE*. Ez haiz
damutuko.

ALBERTO J. **GORRITIBEREA**

Profesionaltasuna dagoela erakutsi du

Hasieran, *Eutsilren* garaian, ez nuen asko ezagutzen Baleike. Harremanetan
jartzeko era polita izan zen eta asko eskertu nuen zerbait izan zen. Herri barruan
halako mimoa edukitzea oso ondo dago. Horrela hartu nuen, ez gehiago.
Gero, *Flysch*-arenean Gorka oso sartuta egon zen eta benetan ikusi genuen,
eta ez nik bakarrik, baita lanean ibili ginenok, profesionaltasuna dagoela eta
gauzak ondo egiten direla. Adibidez, *Flysch*-arekin paralelo *Baleike* aldizkariak
kristoren erreportajea atera zuen. Hirugarrenean, *Arriya*-n, zuen babesa izan
nuen eta harekin egin zidaten elkarrizketa egin didaten onenetakoa edo onena
izan zen. Eta asko egin zizkidaten. Hor agerian geratzen da herriko aldizkari
bat dagoela, baita atzean profesionalak daudela ere. Hori pixkanaka ikusi dut.
Kanpotik etorri direnek haluzinatu egin dute hemen egindako lanarekin.
Kritikatxo bat ere badut. Gehiago maite dut Baleike kulturala.
Gaurkotasunean ez naiz asko sartzen, nahiz eta hori ere egin behar den.
Kulturaren aldetik, pena ematen dit euskaraz soilik izatea eta horregatik
herriko zenbait jende baztertzea. Nire ustez, kulturak euskararen eta beste
hainbat gauzaren gainetik egon beharko luke. Kulturala den tresna bat, zenbat
eta irekiago izan, zenbat eta jende gehiagorengana heldu, niretzat askoz ere
indartsuago izango litzateke.

ZIPRIZTINEK,
OLATUA





AINTZANE URBIETA

Beti presente nesken eta mutilen lana helarazten

Arrauna udako kirola izan arren, urte guztian aritzen gara arraunean eta *Baleike* beti egon da presente, nesken eta mutilen lana herritarrei helarazten. Batel, trainerilla eta traineruaren denboraldien segimendua egiten dihardute; eta nesken kasuan, trainerua atera genuenetik elkarrizketak, bideoak, erreportajeak, argazkiak... denetarik egin digute. Aipamen berezia tartean: iazko Kontxako banderaren zenbaki berezia. Zenbaki hori herritar askorentzat izango zen berezia, baina batez ere guretzat. Nire kasuan, gainera, denboraldia amaitu gabe joan nintzen, eta urrutitik, Ozeanoaren beste aldetik, nire sentimenduak eta taldekideei zorionik beroenak idazteko aukera eman zidan *Baleikek*, nire iritzi artikuluarekin.

Urte hauetan *Baleikek* eman digun aukera eta egin duen lana goraipatzeko modukoa da, dudarik gabe; bai aldizkarian, bai webgunean. Mila esker, eta jarraitu horrelaxe!

HAIZE GALARRAGA

Baleikeko atea irekita

- Hi, Paol puntan zitxon grua ureta bota omen dik olatu batek!
- Ze esateek?
- Bai, tio, Baleiken ikusi diat!
- Ni atzo con nituan Baleikeko argazkiak ikusten. Kriston latzaituk. Usteiat batian hire arreba agertzeala bizkarrez, txakurrakin.
- Nike ikusi nixkin. Nere arreba dek bai, Xolotekin.
- Guazenai Talaiepa grua ikustea, ta geo trago bat hartukoiu Leizen.
- Hori dek!

Elkarrizketa hau benetakoa izan zitekeen, baina ez zen hala izan. Urruti xamar harrapatu ninduen, ba, mendeko denboraldiak. Hala ere, besteak beste Baleikeri esker, informazio puntuala izan nuen momentu guztian. Hori, eta koadrilako eta familiako WhatsAppari esker, noski. Esan beharrik ez dago kanpoan bizi garenontzako Baleikek ematen duen zerbitzua, herriko gertaera, txutxumutxu edota paperezko edizioan datozen artikuluekin (sartuak barne) Zumaiarekiko lotura estuagoa sortuaz. Nire kasuan, gainera, herrimina arintzeko tresnaz aparte, nolabaiteko adierazpen bidea izan da sarritan. Musika kolaboratzaile bezala eta bidaiaren baten edo besteren berri emateko idatzi izan dut *Baleiken*. Gustura, gainera, erreportari sena pizteraino, kar, kar kar. Eskertzekoa izan da bai, 20 urte hauetan *Baleiker*en atea irekita eduki izana. Bertako jendea beti, edozein proposamenei arreta egin eta berehala hurrengo zenbakirako presioa sartuaz. Beste hogeit hamar gutxienez ere jarrai dezala Santelmoetako argazkiak jartzen eta Itxas-Gainen garaipen berri ematen. Aupa zuek!

ERREPORTAJEA

Donostia: Masetan pila teknologikoen kokatzeak. In-
sener Teknako errepaso egiten da lan Haize Galarraga, bertako ez-banizkari (Jelentz, albariton, etc.) gaitzako departamentuan. Lanak burutu ostean du Txena, atxiko jalarri gabearen. "Hala profizioaren dages Hande herri jalarri gabearen. Han han Tindia herria Beijingen burutzen eta nio. Han han Tindia herria Beijingen burutzen eta nio. Han han Tindia herria Beijingen burutzen eta nio."

inguru hiri diru. Tibeten atzeren, profizioa atzer...
Tibetan herren. Burutzen dagesaren, emite...
dies profizioa bererren, hererren egiten da Ugi...
"Tasa hain sikiat jantzeren da, Aza Zorionak...
atzeren, eta irle idetik moudimant diru".

ELKARRIZKETA

Ahaztutako ofizioak

Kirajopiko herriaren herriak hainbat ofizio dituztena egin nuen iazko Haziak kirajopiko, erremendurik, eta.

"Tasa hainko aita zibe...
man buelta herriare...
bat hazi nuen. Aita bat...
berrik jartzen art zibitar...
eta zibitar gaitia jazi...
nuen argutian. Lan...
hainko jazi herria...
argutia kamara argutia...
jantzeren buelta herria...
ofiziotik berria eta herria...
dago -desertu eta a...
ofiziotik -desertu eta a...
berria berria -gaitia...
dago".

Eskertze herriko...
hasik sumat gaitia...
akitia.



Haziak erein uzta jasotzeko

Nostalgiako jartzeko eskatu didate. Eskubidea badugula iruditzen zait, *Baleikek* 20 urte betetzen dituenean. *Baleike* aldizkaria Gu Ez Goaz Zumaiako Talde Antimilitaristaren bozeramaile ere izan zela esan daiteke. Zumaiako Gazte Batzordeak argitaratzen zuen aldizkaria izanda, gazteen arteko gai indartsua zen sasoi hartan intsumisioarena. Gainera, Gu Ez Goaz aldizkariako kolaboratzaileen artean zegoen *Baleike* jaio zenean. Bertan argitaratu ziren Zumaiako lehenbiziko intsumisoei egindako elkarrizketak, epaiketen berriak (lehenbiziko zenbakian nire jaunartzearen argazkia argitaratzeak eragindako lotsaz oroitzen naiz), antimilitarismoarekin lotura zuten hainbat artikulua (neska intsumisoei eginda genien elkarrizketa ondo gogoratzen dut) eta intsumisio izateagatik epaitu behar zituzten Juan Luis Blancoren eta Iñaki Etxanizen argazkiek 2. zenbakiaren azala eta 18.arena bete zuten, hurrenez hurren. Herria asaldatuta zegoen bertako gazteak epaitu behar zituztelako jendeak delitutzat ez zeukan zerbaitengatik, eta horrek herritarren babes izugarria erakustera eraman zuen. Jendeak ez zuen ulertzen zergatik joan behar genuen kartzelara soldadutza egin nahi ez izateagatik. Guk garbi geneukan “delinkuenteak” ginela; legea ez genuela bete nahi ez zelako bidezkoa, alegia, eta gure indar kolektiboak bidegabea zen lege hura aldatzera bultzatuko zuela Espainiako estatua. Horrelaxe izan zen. Legea aldatu genuen. Horrek poza ekarri zigun lehenbiziko unean, behintzat. Gero etorri zen autokritika eta intsumisioan gehiegizko indarra jartzeak antimilitarismoaren kontzientzia lausotu ez ote zuen izan zen hobeto pentsatu genuen ondorengo hausnarketa. Egia da antimilitarismoaren inguruko iritziak *Baleiket* (eta gizartetik) desagertu direla eta horrek triste jartzen gaituela, baina gure hazia erein genuen eta gure artikuluek zerbaiterako balio izan zutela pentsatu nahi dut: Zumaiako herria antimilitarismoaren gaian orain dela 20 urte baino informatuago eta sentsibilizatuagoa dagoela, eta, agian, herri mugimendu haiengandik geratzen dena *Baleike* bezalako proiektuak izan daitezke.



Ikasleen ulermena lantzeko erabili ditugu aldizkariak

Azkar pasa dira urteak! Gogoratzen ditut aurreneko *Baleike* aldizkariak; ilusio handiz egindakoak, baina etorkizunari beldurrez. Zumaiarrak nola hartuko? Horrelako proiektua aurrera eramateko gai izango ote? Proiektuaren biabilitatea? Ba, proiektua adinez heldua egin zaigu eta hilabetez hilabete aldizkaria jarraitzeko aukera izan dugunok pozez sentitzen gara. *Baleike*, Zumaiako aldizkaria. Urte hauetan guztietan zumaiarren notiziak gertutik jarraitu ditu, iraganeko gertaerak eta bizipenak ezagutarazi dizkigu, erreportaje zoragarriak irakurtzeko aukera ere eman digu, hainbat lankidetzatza proiekturen ahoa izan da, herri egitasmoen ispilu,...

Zumaiako Institutuko irakasleok, gehienbat kanpotarrek, *Baleikek* emandako informazioa oso gertutik jarraitu digu eta bertako

istorioak ezagutzeko aukera izan ere bai. Makina bat aldizkari erabili digu Institutuko irratian irratsaioak prestatzeko. Hainbat gaitan, hainbat ikaslerekin bertako erreportajeak aprobetxatu ditugu informazioa ateratzeko, ulermena lantzeko. Institutuan aurrera eraman ditugun proiektuak herriratzeko eta ezagutarazteko aukera eman digu *Baleike* aldizkariak; esaterako, Agenda 21eko ekintzak, Hezkuntza proiektua, Sahararen aldeko DARAHLI lankidetzatza proiektua, euskara ekintzak, kirol albisteak, zerbitzuak, publizitatea... Zorionak 20 urte hauengatik eta beste hainbeste opa dizuegu. Zorionak *Baleike* ontzia aurrera eraman eta lagundu duten guztioi!





MARI BERNAL

Non dago notizia, hortxe dago Baleike

Algorriko labarrei begira badirudi denborak ez duela aurrera egiten, ilargiaren erritmoan itsasoak gora eta behera dabil, harriak higatuz, borobilduz, bere egunerokoari ezin ihesi. Aldaketak ematen dira hemen ere, baina gehienetan oharkabean igarotzen dira, geldo, pixkanaka, motelegi gure bizitzaren neurriarekin alderatuz. Arroken denbora horretan zer dira, ba, 20 urte? Huskeria baino ez. Harriak ez bezala, azkar bizi gara, azkarregi batzuetan, eta tarte horretan gauza asko gertatu dira gurean. *Baleike* sortu zenetik, hamaika kontu izan dira herrian eta horien berri eman ere bai: padura zen tokian kirol portua dugu orain, eta pastelak saltzen ziren horretan orain txorixoak zintzilik. Aldaketa denboraren ezaugarri. Duela 16 urte *Baleike*ko orrialdetan jakin genuen plastikoa eta aluminio potoak laranja koloreko edukiontzi berrietan bereizi beharko genituela. 16 urte eta badirudi batzuek, behintzat, ez dutela oraindik horretaz ohartu nahi. Denbora ez denez inorentzat alferrik pasatzen, ezta *Baleikerentzat* ere, aldaketa ugari ikusi ditugu hasierako ale haietatik. Hainbatetan aldatu du bere kanpo itxura eta hasierako freskotasunetik galdu badu ere, beste alderdi batzuetan asko irabazi duela esango nuke, herrian gertatzen diren berrien erreferentzia bihurtuz. Aldaketekin bat eginez, teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerak ondo aprobe txatu ditu Baleikek paperezko hilabetekaririk haratago zabalduz. Non dago notizia, hortxe dago Baleike, denetariko kolore eta iritziak bilduz. Aurreneko aleko hitzaurrean horrela aurkeztu zen aldizkari berria: "guztionez zuzendutako zerbait egin nahi degu", "Herri aldizkaria... ez da hala izango herriak irakurtzeagatik soilik... herriak berak egingo duelako baizik", "Baleike hau lortzea zaila izatea, baina, guztion parte hartzearekin ateratzea ere baleike!". Baleike bai! eta ondo gainera... urte askotarako eta bejondeizuela!



Herriko mugak gainditu ditu



Baleike aldizkariak 20 urte; garai bateko Zumaiaiko Gazte Batzordeak herri aldizkaria sortu zutenean, gutxi pentsatuko genukeen adinez nagusia bihurtuko zela asmoa.

Bere historia kontatzea ez zait tokatzen, baina esan dezaket urteetan zehar, era batera edo bestera beti oso hurbil izan dudala, bai aldizkaria, bai lantaldea.

Esan dezaket herriko eragileen artean garrantzitsuenetako bat dela, beste eragileak elkartzen laguntzen duena, gainera, eta hain modan jarritako erreferente hitza ere erabil nezake.

Argi dago, gainera, herriko mugak gainditu eta aldizkaria (eta Interneteko saila ere bai) ezaguna dela, jarraitzaileak dituela,

sariak ere jaso dituela.

Baina niretzat herriaren duen oihartzuna da garrantzitsua: aldizkariak izena eta izana zumaiairak ditu.

Herriaren iragana mimoz lantzen du, zumaiairren jarduerak munduan zehar erakusten dizkigu, eta Zumaian puri-purian dabilzan gaiak jorratzen ditu.

Kulturgintzan lanean gabiltzanok *Baleike* ezinbestekoa dugu. Eta, benetan, batzuetan amorrarazten nau haien albisteek gure agendak baino jarraitzaile gehiago izateak: "Nola izango da, ba, dena delakoa? Ezin leike, *Baleike* ez da azaldu eta!".

Kultura, herrigintza, bizia, euskaraz... Zumaian? *Baleike*!

Segi horrela!!

Zumaian *Baleike*!



Zumaian *Baleike*; euskaraz irakurri eta idatzi leike, herrikideen berri jakin eta zumaiair izan leike, ez dena ere bertakotu leike, herri bat izan leike.

Zumaian *Baleike*; iritzia eman eta parte hartu leike, euskaldun

sentitu eta bizi leike.

Zumaian *Baleike*; urrunera begiratu eta gertukoa jakin leike, historia ezagutu eta etorkizuna ikusi leike, eta azkenean, dena bat izan leike....

ZORIONAK *Baleike*! Zorionak Zumaia! Denon artean *Baleike* 500 bazkide izatera iritsi leike!

Zumaian *Baleike*... ai! beste herri askotan ere ahal baledi!!



Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA



• Txarkuteria bikaina

• Inguruko baserrietako haragirik onena

• Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak





kuttur
lentzeria

erribera kalea tel. 943117936



malaur

MAITE
ILEAPAINDEGIA



Arraikiako plaza, 2 tel. 943 143 278



Maluta
jatetxea + taberna

oilasko erreak • kaxuelitak • ogitarrekoak
Izaga, 2 Tel. 943 860 224

CROISSANTERIA



pizzak
hanburesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46



MENDI - ONDO C.B.
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569



Nikol
taberna

Arriako plaza 943861814



NOIA S.L.
TAILERRAK ETA
KARROZERIAK

Etengabeko garabi zerbitzua

Hego kalea, B3 (Estazioan) 20750 - Zumaia
Tel.: 943 861 363
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar indurigunea, C 20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943 606 291
noia@carroceriasnoia.com

636 867 812 (Zumaia)
609 834 438 (Itziar-Deba)
www.carroceriasnoia.com

MARGARI Arto-denda

Tel. : 943 86 19 20
Harategi Kalea 17 - ZUMAIA

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea Tel. 943 861 691



OSA
BERNIZATUAK

Zoruen kutzilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 tel. 943 861 412 - 886 364 149

OLIDEN
construcciones y reformas, S.L.

647 040 156
686 911 257
oliden@olidenreformas.com

Oliden arkitek-tura

678 875 652
943 143 093
lun@olidenreformas.com

www.olidenreformas.com

ZARAUTZ - ZUMAIA

www.olidenreformas.com

Fabrikak
Telatutak
Etxetxoak
(Suhaitak, berogailuak)
Industria mantenimenduak
Mota guztietako gertzerota lanak

Etxetxoen inspektzio teknikoa (ITE)
Zerifikatu energetikoa
Fabriken bermea eta aldatzea
Etxetxoen lame bermea
Mota guztietako proiektuak



OSKARBI
KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arranaitz, 1 Tel. 943 143 112
oskarbi@kirolak.com • oskarbi@net



OSTOLAZA
OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Joxe Mari Kortu Indurigunea, A1 - 4. pat. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943 86 50 68 - Faxa 943 86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: ostol@ostolaza.com

Ostolaza
Altzariak

Julio Beabide biltokia, 1
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolazaboliviskolnet.net

Tel./faxa: 943 86 13 25

OTEZURI
KAFETEGIA

Gosariak
Ogia
Egunkariak

Sagarbidea, 4 Tel. 943 143 401

La Primavera
pizzeria

943 247 011

www.laprimaverapizzeria.com

Rosi Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943 016 353

RUBIO Pinturak

PINTURAK,
ARTE EDERRAK,
ALFONBRAK,
DROGERIA,
PINTATURIKO PAPERAK,
ESKULANAK...

943 661 335 • 656 779 788
Erribera 1 behea

SESMA
ENTRENATZAILE PERTSONALA

Kalitatezko Jarduera Fisikoa eta Kirola

667 750 206
www.entrenadorpersonalsesma.com
josebasesma14@gmail.com

Talaita
taberna-jatetxea

Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370

TALAI-PE
jatetxea-erretegia

Arrainak, mariskoak eta txuletak parrillan
Julio Beobide Ibiltoa Tel. 943861392

Tapaia
Taberna

Erribera behea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943 861 973

TTAKUN TABERNA

Izustarri, 3
tel. 943 865 289

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Tzerri-ukandak (kodilloak)
Salbitzak, oilaskoak...
Garagardok dukerak

Ondarza plaza, 4 beheo Tel. 943 573 905

OKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA
Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943 860 992 www.okendu.com

UPELA PARABOTIKA
BELARDENDA

- ✓ Sendagai naturalak
- ✓ Osteopatia eta masajeak
- ✓ Naturista, dietetika eta elikadura.

Upela plaza, 9
943 537 911
upelabelardenda@hotmail.com

Zalla jatetxea

- plater konbinatuak
- ogitartekoak
- oilasko erreak

Upela Plaza 3 • 943 86 23 81 ZUMAIA

ZATOZTE

zatozte.bakailaudenda@gmail.com
Juan Behorra 4 behea 20750 Zumaia
71 4086303

ZUMAIA AUTOESKOLA
E-mail: zumaiaautoeskola@eurolnet.net

BASADI 15
20750 ZUMAIA
Tel. 943861018 / Fax. 943015126

Zumaia Hotela
Jatetxea
Kafetegia

Atari ezuztegia, 20750 Zumaia tel. 943 143 441 faxa 943 860 161

EuroTaller
ZUMAIA MOTOR, S.L.

José Rey Alfaro
Gorritx

Santxo Auzoa, 22
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
Tel. 943 143 143 - Fax 943 865 161
e-mail: zumaimotor@telefonica.net

ESKERRIK ASKO
—
25 URTE ZUEKIN

%25
DESCONTUAK

25 urtez gure ondoan zaudelako.

Txomin Agirre 6, 20750
T 943 143 057
www.eduoptika.com

Herriko bizitza ikusgarri egiten du Baleikek

Hutsetik hasten ikusi genuen Baleike, txikitik hazten, eta... zer litzateke gure herria Baleikerik gabe! (jarri doinua!) Ziurtasun osoa dugu herrikoek, garrantzia duen zerbaite gertatzen bada herrian, hor egongo dela. Albistea non, Baleike han! Eta hori beste inork ez digu ematen. Nora jo mendia goitik behera erori dela entzuten dugunean? Itsasoak Parolbidea txikitu duela edo ertzainak Gaztetxean sartu direla? Informazioa ezin hurbilago.

Baina baita bestelakoak ere. Zer gertatu da herrian? Garrantzi handikoak eta txikikoak; denek osatzen dute herriko bizitza, bertakoarekin blaitzen da bat, eta ia konturatu gabe ondokoaren proiektuaren, lanaren, eskaintzaren berri duzu. Harritu ere egiten da bat jakitean zenbat jende eta lan interesgarri dagoen

herrian bertan! Ikusgarri egiten du Baleikek, elkar ezagutzeko aukera ematen, harremanak bideratzen, jendea aktibatzen.

Eta hori guztia euskaraz, natural eta lasai. Eta baliabide handiagoko komunikabideek nahi luketen kalitatearekin (ezin itsaso zakarraren argazkiak aipatu gabe utzi!). Horregatik disfrutatzen dugu Baleikek ematen digunaz; luxu bat delako urtea joan eta urtea etorri saritua izateko meritua duen komunikabidea herrian izatea. Eta, horregatik, erreferentzia izatea lortu du Baleikek herrian eta herrikan kanpo. Akaso, herrikoak elkartzeko gaitu, eta gainerakoek ikusten gaituzte. Ez da gutxi.



JON MAIA

Letra txikian

Zorionak, *Baleike!* Zorionak hasiera haietan ezer ez zegoenean animatu zineten ekintzaileei —zer garrantzitsua den ekintzaile izatea eta ausardia izatea!—, bidean aritu zareten guztiei —zer kazetaritza eskola hainbeste jenderentzat!— eta oraingo taldeari —horrelako komunikazio plataformarik edukiko genuenik ere!—.

Zorionak, *Baleike*, Zumaiari irakurri eta ikusten den komunikabide garrantzitsua izatea lortu duzuelako, euskara komunikazio hizkuntza nagusia bihurtu duzuelako, euskara eta kalitatea lotu dituzuelako, euskara eta prestigioa, euskara eta azkartasuna, euskara eta herri baten bizitza.

Mundu gero eta globalagoan gure errealitatearen eta gure hizkuntzaren su txiki hauen beroan bizi gara batez ere euskaldunak. Bertakoaren indarrak mantentzen gaitu bizirik erraldoiez inguratuta gaudenak. Ez soilik bizirik, baita nagusi izanik ere.

Urteurrena dela eta aterako dituzue datuak, estatistikak, kopuruak... baina niretzat *Baleikek* lortu dituen emaitza garrantzitsuenak, sakonenak eta eraginkorrenak ez dira kuantitatiboak, kualitatiboak dira.

Baleikek herrian sarea egiten du, gure arteko berri jakiteko balio digu eta zer garen, zer egiten dugun, zer pentsatzen dugun jakiteko daukagun tresnarik zuzenena da.

Gure arazoekiko, asmoekiko, errealitatearekiko lotura afektiboa sortzen du *Baleikek*. Herria egiten du, nortasuna eraikitzen du. Herriarrak garrantzitsu bihurtzen ditu eta ahotsa ematen die. Bestela beharbada inon agertuko ez lirartekeen eskubaloi jokalaria, sukaldaria. langilea, abeslari koroa, abenturazalea, ekintzailea, erretiratua, herriko filosofoak... nor bihurtzen ditu *Baleikek*.

Nik neuk asko daukat zuei eskertzeko, beti eduki dudalako leku bat, aukera bat, zuei esker nire herrikeri egiten ditudan gauzak adierazteko eta azaltzeko.

Noizbait Zumaiari eta zumaiarrei buruzko lan bat egin nahi izango duenak hor aurkituko du benetako informazioa, hor herri baten izatera gehien hurbiltzen den adierazpena.

Segi ezazue letra txikiarekin zumaiarren eta Zumaiaren historia handia idazten. Eskerrik asko!

Baleike
Zuzeneko berri aldizkaria 41 zenbakia 1997ko abendua 200 pata

Jon Maia Txapelketa Nagusiko Finalean

Elkarriketa
• Tito Mancilla, Orioko entrenatzaile berria.

Erreportaia
• Laia, euskal produktuen museoa.

Zuzeneko berri aldizkaria, Zumaiaren 100. urteurrenaren ospakizun garrantzitsua.

Herriko komunikabide batean ateratzea telebistan grabatzearen oso bestelakoa zen!

15 urte nituen *Baleike* aldizkarian lehen aldiz irten nintzenean. Betizun nebilela-eta elkarrizketa bat egin zidaten, a zer lotsa! Herrian hain zabaldurik dagoen komunikabide batean agertzea telebistan grabatzearen oso bestelakoa zen! Ondoren, 2006an Darahli proiektuarekin sahararren errefuxiatu kanpamenduetara

egin genuen bidaiari *Baleike* bertan izan zen, segimendua egiten. Elkarteak eratu ostean ere gure lanaren berri eman diezue herriari, eta hori oso garrantzitsua da guretzat, jendeak hobeto ezagutu ditzan zein diren saharar herriaren beharrak eta gure proiektuak. Mila esker, benetan.



KAULDI ODRIOSOLA
ANDER TORRIKO

Ilusioa egin zigun horrelako segimenduak

Aurretik, noiz edo noiz, egunkariaren batean aterata geunden, baina herriko aldizkariak eman zigun elkarrizketa luze bat egiteko lehen aukera. Euskadiko txapelkunak izan ginen iaz, kadete mailan, eta horrek Espainiako Txapelketa jokatzeko aukera izan genuen. Lorpen horrek aldizkari orrialdeetan agertzea ekarri zigun, eta, ondoren, Espainiako Txapelketaren segimendu zehatza egin zuen *Baleikek*. Partiduen kronikak, argazkiak, bideoak... Esperientzia polita izan zen, eta ilusio berezia egin zigun horrelako segimendu ona eta zehatza egitea. Jendea kiroldegira ekarri zuen, giro itzela egon zen. Bartzelonaren aurkako partidua erakargarria zen, zaila era berean, eta bideoan gordeta izatea altxorra da. Jende askok ikusi du Youtubetik.





IURRE **EIZAGIRRE**

Lagun artean sentitu nintzen

Duela 8 urte, nire bizitzako bidaiarik garrantzitsuenaren egin nuen Indiara eta konkretuki Kalkutara. Bi urte geroago bueltatu nintzenen beste bat nintzen. Bizitako bizipenak erabat aldatu ninduten eta ezagutu nuen jendea betirako bihotzean sartu zitzaidan.

Dudan altxor handienetako batek ere gurekin egin zuen Kalkutatik Zumaiarako bidaia. Bueltatu ginenean, Gorkak eta Kattanek egin zidaten *Baleikerako* entrebista. Beldur pixka batekin joan nintzen, baina uste baino errazagoa egin zitzaidan. Lagun artean moduan sentitu nintzen, nahiz eta momentu haietan oraindik ez genuen elkarrenganako konfiantza handirik. Orduetik aurrera, gehiagotan egin dugu lan elkarrekin eta *Baleikek* asko lagundu dit Indiatik bueltan hasi nuen Nava Jeevan elkartearen bidaian. Orain ere lerro hauek idazteko aukera eman didate eta eskerrak eman nahi nizkieke *Baleikekoei* eta Zumaiako herriari emandako laguntzarengatik.

ERROTA



OPIL OKINDEGIÀ

*era fuztietako tarta
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa TEL: 943 86 00 00

Erribera, 2 TEL: 943 14 30 01

Juan Belmonte, 5 TEL: 943 86 03 00

Basadi, 4 TEL: 943 14 32 21

P. Etxezarreta, 42 TEL: 943 86 25 28

Alai, 8 TEL: 943 86 25 60

UZTAILAREN 5EAN,



DENOK KALERA!

Baleike Eguna EGITARAUA

11:00etan: Zumaiaiko Udal Musika Banda, Udal Txistulari Banda eta Beheko Plaza Abesbatzaren saioak herrian zehar.

12:30ean: txaranga-bertso-poteoa Erribera kaletik Herri Eskolako frontoira.


14:30ean: Bazkari herrikoia frontoian. Txartelak salgai turismo bulegoan eta Ttakun, Inpernupe eta Trapaia tabernan, 15 euroan helduena eta 10ean haurrena.

17:30ean: Kalejira Victoriano Arrate etorbidetik Torreberriera. Bidean zehar hainbat ekitaldi: musika, dantza, bertsoak, antzerkia, magia...


Baleike oldarkorra ere izan da 20 urte hauetan. Hori izan da bere ezaugarrietako bat. Zerbait pentsatu eta berehala egin. Urteurreneko Txoua! egin behar dugula zinean? Primeran, erabili dezagun pantaila. Nola? Pelikula bat eginez. Lagunak elkartu, kamera bat lortu, grabazioarako eguna jarri, gidoia bezperan (iluntzean) idatzi, gainezka dagoen aretoan proiektatu, lehiaketa batera aurkeztu, bigarren dokumental onenaren saria jaso eta afari batekin zelebratu. Momentu pletorexikoak. Hogei urte igaro dira aldizkari hau jaio zenetik, baina bere urteurreneko ospakizunarekin ere antzeko zerbait gertatu da. Donostia 2016ko egitaraua prestatzeko urteak beharko dituzte. Gurea, uztailean 5ean egingo den Baleike Eguna, bere txikitasunean anbizio handikoa, di-da batean prestatu dugu. Pentsatu eta egin. Eta tartean ideia saldu herriko kultur eragileei; Crowdfunding, Twitter eta WhatsApparen garaian, Erribering taktika zaharra bezain eraginkorra erabiliz. Ardoa/zerbeza/gintonika/Kokakola eskuan, kalean lasai doanari deitu, besoa bizkarretik pasa eta derrepentean ideia bota: Baina zer ikusi/bizi/sentituko da Baleike Egunean? Herriko kulturaren erakusleho, elkargune eta orain hain modan dagoen parte hartzearen mugarri izatea du helburu "xumea". Kultura aldetik sekulako potentziala duen herria da Zumaia eta herriko kultur talde eta eragileak elkartuko dituen proiektu bezala ikusten dugu. Elkartu, disfrutatu, barre egin, aldamenekoaren gaitasunarekin txoratu eta herriari erakutsi herrian bertan zer dugun. Uztailean 5ean herria kalera atera nahi dugu. Izan dadila herritarrek eta herriko kultur elkarteak bilduko dituen eguna. Musikarekin salto egin, dantzarekin gorputzak astindu, magiarekin buru kaskezurra igurtzi, aktoreekin barre egin. Goazen herriko kulturarekin disfrutatzen eta orain eskutan duzun aldizkari honen 20. urteurrena ospatzera.



6 AMAIAKO PLAZA



7 ARRANPLA



8 KOFRADIA



9 GOIKO PAREAN



10 TORREBERRI

ABANTAILAZ BETETAKO BAZKIDE TXARTELA



Hogeigarren urteurreneko zenbaki berezi honen hitzaurrean aipatu dugu zer garrantzitsua den giza talde, herri edo komunitate batentzat burujabetza informatiboa, komunikaziorako tresna propioak edukitzea. Euskarazko toki komunikabideen ezaugarria da: herri mugimendutik sortu dira eta herriarentzat egiten dute lan. Orrialdez orrialde bildutako iritzietan ohartuko zinen herrigintza dela, hain zuzen ere, Baleikeren funtsezko egitekoa. Baina hori ezin da egin herritarren babesik gabe. Hori da bere benetako indarra, hori bere izateko arrazoia.

Horregatik, bazkideak dira Baleikeren bihotza. Gaur egun 350 bazkide inguru ditu Baleikek, eta beraien ekarpenari esker dauka Zumaiak komunikabide propioa. Haiei esker argitaratzen da aldizkaria hilerro, eta haiei esker zabaltzen dira herriko albisteak egunero interneten. Urtean 40 euroko ekarpena egiten dute, Zumaiak bere komunikabide propioa behar duela sinesten dutelako.

Fideltasuna da gure bazkideen ezaugarrietako bat, askok eta askok gurekin egin baitute bide osoa. Baina teknologia berriek erronka eta aukera berriak ekarri dituzte eta, Zumaiak merezi duen komunikabidea eskaini ahal izateko, bultzada indartsu bat emango diguten bidelagun berriak behar ditugu. Dagoeneko milaka batzuk dira Zumaiako albisteen berri Baleikeren bitartez jasotzen dutenak, webgunean, sare sozialetan edota aldizkarian. Zu zeu horietako bat zara, ziurrenik. Egin zaitez bazkide, har ezazu parte proiektuan. Merezi du.

Bazkide berriak erakartzeko kanpaina egingo du Baleikek uztailetik aurrera, bidean aurrera sendotasunez egiteko ezinbesteko baitu herritarren babesa. Bazkideen ekarpenari esker dauka Zumaiak euskarazko hedabide propioa, eta bultzada hori eskertzeko abantailaz beteriko txartela prestatu dugu. Orain ez daukazu aitzakiarik, egin zaitez bazkide.

Deskontuz betetako txartel berria: Bazkide Kluba

Baleikek beti izan ditu alboan Zumaiako merkatariak, herriko denda, negozio txiki, taberna eta jatetxeak. Iragarle fidelak dira eta finantziario iturri garrantzitsua Baleikerentzat. Gure arteko elkarlanean beste urrats bat egin dugu, eta Baleikeko bazkideentzat hainbat abantaila eskainiko dituen Bazkide Kluba sortu dugu.

Irailerako txartel berria jasoko dute bazkide guztiak. Txartel hori erakutsita, deskontuak, eskaintza bereziak eta abantailak izango dituzte herriko hainbat denda, zerbitzu, taberna eta jatetxetan. Osatu dugun lehen zerrenda orrialde hauetan irakur dezakezue. Eskaintzan aldaketak eta nobedadeak izango dira aldiro-aldiro, eta aldizkarian eta webgunean emango dugu haien berri.

Gainera, orain arte bezala, bazkideek etxean jasoko dute hilerro aldizkaria, eta Baleikek urtero argitaratzen dituen kultur produktu bereziak ere eskuratu ahal izango ditu, doan edo kioskoan baino merkeago.



Egin zaitez bazkide

Orrialde hauetan irakurri dituzu gure argudioak. Orain zure txanda da. Baleikeko bazkide izan nahi baduzu bidea erraza da. Urtean egin beharreko ekarpena 40 eurokoa da. Kupoian aipatzen diren zure oinarrizko datuak beharko ditugu:

Izena:

Abizenak:

Zenbat zarete etxean:

Helbide elektronikoa:

Telefonoa (mugikorra):

Telefonoa (etxekoa):

Helbidea:

Herria:

Posta-kutxa:

NAN:

Kontu-korronte zenbakia (20 digitu):

Datuak osatu eta guri helarazi bide hauetakoren bat erabilita:

- Posta elektronikoz: elkartea@baleike.com
- Baleike.com webgunean formularioa bete eta bidaliz.
- Telefonoz: deitu 943861545 zenbakira eta erantzungailuan utzi zure telefono zenbakia. Jarriko gara zurekin harremanetan datuak jasotzeko.
- Hemen dagoen kupoia bete, moztu eta entregatu turismo bulegoan, Alondegian edo Bazkide Klubeko eskaintzan parte hartzen duten establezimenduetan.

Ertz informatika

Ordenagailu eramangarria eta jokoak erostean %5eko deskontua. Ordenagailu eramangarrien konponketan %5eko deskontua.

Tximista taberna

Astearte eta asteazkenetan, inportazioko bi garagardo ordaindu eta hirugarrena doan.

Juanjo harategia

10 eurotik gorako lehen erosketarekin, ardo botila opari. Bazkide txartelaz gain, aldizkarian argitaratuko den kupoia erakutsi beharko da.

Basusta Erreategia

Astelehenetik ostiralera, kartako bazkariak %10 merkeago.

Arruti arropadenda

Irailean %10eko deskontua. Deskontu hau ezin zaie gainontzeko eskaintzei gehitu.

Maiaur

Irailean eskaintza bereziak Maiaur izozkietan.

Iratxe Plazaola

Sei hilabetez, asteazkenetan errebisioa eta aho eskubila doan. Bazkideak eta beraien bikote eta seme-alabek balia dezakete eskaintza, bakoitzak behin.

Marina kafetegia

Bost pizza erosita, seigarrena doan. Txartel bana jasoko da erositako ale bakoitzeko, eta bost osatutakoan, pizza baten truke aldatzeko aukera izango da.

Agustin harategia

Irailean, 25 eurotik gorako erosketa eginez gero, oliba olio botila opari. Aurrez sukaldatutako produktueta 15 eurotik gorako erosketa egiten duenari, ardo botila bat.

Zalla taberna

Udazkenean, kafea euro batean.

Egoki erlojudenda

%10eko deskontua erlojuetan, eta urre edo zilarrezko bitxietan. Deskontu hau ezin zaie beste eskaintza batzuri gehitu.

Nikol taberna

Ostegunetan lehen garagardoa euro batean.

Ana zapiak

%5eko deskontua produktu guztietan.

Basusta loredenda

Azaroaren 3tik martxoaren 12ra, %10eko deskontua 25 eurotik gorako erosketa eginez gero, hileta eta ezkontza zerbitzuak ezik.

Kabi taberna

Garagardo kaña 1,5 euroan.

Juaristi jatetxea

Afariarekin kafea doan; kafea hartzen ez duenak txupittoa aukeran.

Trapaia taberna

Igandetako bazkariarekin kafea opari.

Ttakun taberna

Ostegunetan kafea euro batean.

Zatozte bakailudenda

Astelehenetan %5eko deskontua txarkuteriko produktueta.

Ganbara taberna

Garagardo kaña 1,5 euroan bazkideei.

Inpernupe taberna

Kafea euro batean bazkideei.

Otezuri taberna

Etxeko tartak %10eko deskontuarekin.

Optika Zumaia

%10eko deskontua betaurreko eta eguzkitako betaurrekoetan.

Ukendu parafarmazia

Baleike txartelarekin %5eko deskontua erosketa guztietan. Ez da bateragarria izango beste deskontu txartelekin.

Margari frutadenda

Baleike txartelarekin %10eko deskontua urte osoan.

Ekin elektrizitatea

LED lanpara eta papertegiko materialetan %10eko deskontua.

Iriondo optika

Haurrengan ikasketa arazoak eta "begi alferra" ekiditeko ikusmenaren azterketa pertsonalizatua doan.

Endañeta elektrogailuak

Urriaren 31ra arte, 1.000 euro arteko artikuluetan %5eko deskontua Baleike bazkide txartelarekin, eskaintza berezietan izan ezik.

D'Ana ileapaindegia

Ilea garbitzeko produktu ekologikoak eta alergiaren kontrakoak (kolorante eta osagai toxikorik gabeak) %15eko deskontuarekin.

Upela belardenda

15 eurotik gorako erosketa eginez gero, 150 gramo zereal opari (kinoa izan ezik). 30 eurotik gorako erosketetan, ezpainetarako margoa opari (aleak agortu arte).

Maite ileapaindegia

Depilazioak %10 merkeago. Hilean behin, bazkideen artean zozketa ilea garbitu eta orraztu debalde egiteko.

Golden Gate Institute

Matrikulazioan %20eko deskontua bazkideentzat.

Ilargi taberna

Kafeak euro batean.

La Primavera Pizzeria

Bazkideentzat etxera eramatea doan.

Beheko Plaza jatetxea

Igandetan pintxoak doan.

A3

Artikulu guztietan %5eko deskontua.

Talaie jatetxea

Bi lagunentzako hiru mariskada bazkideen artean zozkatzeko.

Talaia jatetxea

Ostiraletan afariarekin kafea eta txupittoa doan.

Artaza kanpin ekologikoa (Urbasa-Lizarra)

Baleike txartelarekin %10 merkeago.

Iruitz ileapaindegia

Asteartetik ostiralera, ilea keratinarekin hidratatzeko tratamendua %25 merkeago. Txanda aurrez hartu behar da.

Ardantzabide altzariak

Ispiluak %10 merkeago.

Aizpurua liburudenda

Haur eta helduentzako irakurketarako liburuak %5 merkeago.

Oskarbi kirolendenda

Arropan %5eko deskontua.

Txalaparta

Bazkide txartelarekin produktu guztiak %5 merkeago, merkealdian izan ezik.

Kuttun

2014ko abenduaren 31 arte, %5eko deskontua produktu guztietan. Ezingo zaio bestelako deskonturik gehitu.

Kalari taberna

Igandean afariak %10 merkeago.

Orain Zumaiako
merkatariak
sarean

Zorionak
Baleike!!



zumartian



www.zumartian.com

www.baleike.com
BALEIKE
kultur elkarteak

herritik sortua
herrian errotua

Zumaiako udala

euskal prentsarekin



Zumaiako Udala



MENDI ONDO
ELEKTRIZITATEA

LTDa indartzeko, berrikuntza teknologikoaren aldeko plana onartu zuen Gobernuak 2012ko abuztuan, definizio handiko telebistaren eta 4G telefoniaren aldeko apustu irmoa eginez. Hori dela-eta, beste itzalaldi bat egin beharko da: itzalaldi digitala oraingoan.

Plan honek 2015eko urtarrilean amaituta egon behar du. 60 eta 69 kanalen artean emititzen ari diren kate guztiak (ETB, TVE, Antena 3, Tele5, LaSexta...) beste kanal batzuetan jarri beharko dira. Aurrez zegozkien frekuentziak telefonia mugikorreko 4G belaunaldiak beteko dituzenez, kate horiek ikusi ahal izateko etxeetako instalazioak aldatu beharko dira (neurri hauek ez diete eragiten telebistako seinalea kable bidez jasotzen dutenei).

telebista

irratia

60-k



- Euskadi Irratia
- Gaztea
- Radio Euskadi
- Radio Vitoria
- EITB Musika

63-k



- Radio Nacional
- Radio 5
- Radio Exterior RNE

67-k



68-k



69-k



- Radio Marca
- Vaugham Radio
- ES Radio

MENDI ONDO ELEKTRIZITATEA

Urola plaza 21. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)

Tel.Fax: 943 86 00 74

e-mail:mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com

**LAN HAUEK EGITEKO ESKATU
AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE**



IPlazaola

HORTZ KLINIKA | CLÍNICA DENTAL



Hobeto sentituko zara!

Odontologia Orokorra
Ortodontzia
Implanteak
Periodontzia
Protesia

Kol. zk. 829

Harategiko kalea 1, behea-A
(Ardantzabidetik Sartuta 4. Solairua)

Tel. 943860247
www.iplazaola.net